

Transfobia Iruñean

GARAT GAZTELU :: 03/10/2022

Zeozer gaizki egin dugu gizartean, trans pertsonen errealitate gogor hobetzeko sortutako lege batek horrelako gorroto mezuak sorrarazten baditu edozein sektoretik datozela

2017ko martxoaren 21ean, duela bost urte baino apur bat gehiago, Iruñeko kaleetan barna ibili zen garai hartan oso ezagun bilakatu zen HazteOir talde ultraeskuindarraren autobusa. Autobus honekin “Los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. Que no te engañen.” esaldi transfobia zabaltzeko nahi zuten, beste toki batzuen artean, Euskal Herrian ere. Iruñean haien helburua parlamentu aurrean prentsaurrekoa ematea eta manifestu bat entregatzea bazen ere, herri mugimenduak ekidin zuen. Hemen ziren LGTBI+ mugimendua, sindikalismoa, mugimendu feminista... Egun egoera bestelakoa da, eta mezu transfoboak gure kaleetan berriro ere topatu arren, orain ez da HazteOir talde ultraeskuindarraren eskutik.

Joan den astean trans legearen aurkako pintaketa eta pegatinekin “apaindu” zuten Iruñea haien burua feministatzat duten pertsona batzuek. Ultraeskuinak darabilen diskurtsoa bere eginda, “utzi umeak pakean” edota “trans legeak umeak mutilatzen ditu” bezalako mezuak zabaltzeko zituzten.

Egoera honek sekulako mina sorrarazten dit. Mina eta bi hausnarketa. Alde batetik, zeozer gaizki egin dugu gizarte honetan, trans pertsonen errealitate gogor eta gordina hobetzeko sortutako lege batek horrelako gorroto mezuak sorrarazten baditu edozein sektoretik datozela. Bestetik, zeinen arriskutsuak diren ultraeskuinak barreiatzen dituen gorroto mezuak, eta nola beti topatzen duten, normalean beldurraren bidetik, zirrikituren bat gizartearen beste sektoreetan zabaltzeko. Zorionez ziur nago gizartearen gehiengoa, eta bereziki, mugimendu feminista ez direla tranpan erori.

<https://euskalerrriarritia.eus/komunitatea/garatgaztelu/1664804208960-transfobia-irunean>

<https://eh.lahaine.org/transfobia-irunean>